


Genealogia feminista



ANTTON OLARIAGA



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Tabu itzela urratzen ari ginelakoan publikatu genuen 2013. urtean lesbianen arteko indarkeriari buruzko monografiko bat *Pikara Magazin*-en. 2017. urtean, *Sangre Fucsia* irratsaio feministak frankismoaren bukaerako eta Trantsizioko lesbianen borrokei buruzko saio bat prestatu zuen, eta horren bidez jakin genuen 80ko hamarkadako aldizkari lesbofeministetan dagoeneko jorratzen zutela gai hori.

Adineko feministek maiz leporatzen diete gazteei beraien memoria falta: “Aluak elkar esploratzeko tailer bat? Lesbofobiaren aurkako herri musukada bat? Horrelako ekintzak 80ko hamarkadan egiten genituen!”. Eta gazteek oldarkor erantzun ohi dute: “Ja, baina ni 80ko hamarkadan ez nintzen jai”.

35 urte ditut eta gero eta gehiago ulertzen dut nagusien amorrua eta, are gehiago, lotsaren lotsaz onartzen ari naiz genealogiaren aldetik ditudan gabeziak. Gakoa da belaunaldien arteko transmisioa egunerokoa nola indartu.

Apustu hori badago, esaterako Miren Aranguren, Edurne Epelde eta Iratxe Retolazak idatzitako *Gure genealogia feministak*. Baina esango nuke memoria

historikoaren ildoak ez dela salmentetan arrakastatsuenak. Bilbon Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroa dugu, baina zenbatetan joan gara Bizkaiko feministok, ez bada lan akademikoetarako bibliografia eskuratzera?

Mari Luz Estebanek egungo mugimendu feministaren dinamiken inguruko kezka mordoa adierazi ditu *Feminismoa eta politikaren eraldaketak* saikeran (LISIPE bilduma), baita indarguneak aitortu ere. Ezinegonen artean, bereziki interpelatu nau feminismoan aditu eta iritzi-emaielen figurek hierarkia eta elite berriak sortu izanaren kezkak. Azaldu du historikoki feminismoaren ezaugarri bat izan dela ezagutzaren ekoizpen kolektiboa sustatzea eta anonimotasunaren aldeko apustua egitea. Adituen ikusgarritasunerako joera lotu du “feminismoa kontsumogai” bihurtu izanaren ideiarekin: hitzaldi feministek publiko handia dute, baina gutxi dira astero asanblada feministetan militatzen dutenak. Joera horrekin, bere ustez, feminismoak ikusgarritasuna lortu badu ere, “entzule/ikusle/hartzaile eta aktibisten arteko harremanak asko desorekatu zaizkigu”. Gaineratu du nekezagoa dela taldeek sinatutako

testuak zabaltzea aditu eta iritzi-emaile feministenak baino. Hala da hedabide tradizionaletan eta, are gehiago, digitaletan. “Nola konpentsatu, nola neutraliza daiteke hori?”, galdetu du.

Uste dut hedabide feministok, mugimendu feministaren aliatu izan nahi badugu, kolektibotasunaren eta anonimotasunaren aldeko apustu hori presente izan behar dugula eta talde ekoizpenak zabaltzeko bideak esploratu, nahiz eta kazetaritza kulturarekin talka egin.

Eta norbanako gisa, nola konpentsatu kazetari feministon sinadurak duen ikusgarritasuna? Bada, genealogia feminista ezagutuz eta izendatuz. Aurrekoan esan nuen: aditu edo iritzi-emaile baino, bitartekari, bideratzaile, zubi papera betez.

Autokritikarekin jarraituz, noizbait esan dut Mendekotasun Legearen murrizketek ez dutela mugimendu feministaren aldetik arreta nahikoa jaso. Bada, Estebanen liburuaren bidez jakin dut Bizkaian Mendekotasuna dutenak Laguntzeko Euskal Sistema Publiko baten aldeko Plataforma feminista existitu zela 2005-2008 urte bitartean (ni 2009. urtean sartu nintzen mugimendu feministan). Orain badakit eta kontatu dezaket. ●